



JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO

al Boletín Oficial
del Territorio
Histórico de Álava

GEHIGARRIA

Araba Lurralde
Historikoaren
Aldizkari Ofiziala

2010eko martxoaren 17a, asteazkena

ZENBAKIA **31** NÚMERO

Miércoles, 17 de marzo de 2010

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

1757

4/2010 Foru Araua, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historiko bizikleta bideei buruzkoa.

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010ko martxoaren 8an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

4/2010 Foru Araua, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historiko bizikleta bideei buruzkoa.

Zioen Adierazpena

Gaur egun, inork ere ez du ukatzen pertsonen joan-etorriek eta salgaien garraioak energia kontsumoa handia eragiten dutela –gehien bat baliabide berriztaezinez sortua, gainera– eta haien ondorioz isurtzen den CO₂-ak eragin izugarria daukala kliman, biodibertsitatean eta lurren kontsumoan. Orobat, gauza jakina da eredu honek ezin diola eutsi luzaroan eta kostu ekonomiko eta sozial jasanezinak dituela.

Horrenbestez, gizakion jardueren (kasu honetan joan-etorriak eta garraioa) eta ingurumenaren arteko harremanak kontrolatu ahal izatea ezinbestekoa da gure jarduerak iraungo badute eta ekonomiak eta gizarteak aurrera egiten segituko badute.

Hori guztia kontuan hartuta, bai Europar Batasunean bai mundu osoan garapenerako eredu berria eratu behar diren inguruko kezka zabaldu da: orain arteko ereduak, neurrigabeko hazkunde zoroan oinarritua, bazterrean utzi behar da eta garraioa, pertsonen joan-etorriak eta lurraldearen antolamendua beste ikusmolde batekin aztertzea behartzen gaituen erreferentzia esparrua ezarriko duen eredu berria finkatu. Eredu berri horretan ibilgailu pribatua ezin da izan gizakion joan-etorrietarako funtsezko baliabidea; aitzitik, aintzat hartu behar dira beste garraio modu alternatibo batzuk, esaterako bizikletan eta oinez ibiltzea, garraio bide publikoekin uztartuta.

Horrela, EBeko gobernu organoek aspaldian egin dute garraio bide iraunkorra bultzatzeko politiken alde, eta hainbat agiri estrategiko sinatu dituzte ildo horretan, besteak beste Europako garraioaren

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

1757

Norma Foral 4/2010, de 8 de marzo, de las Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Álava.

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 8 de marzo de 2010, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 4/2010, de 8 de marzo, de las Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Álava

Exposición de Motivos

Hoy en día, nadie niega que el desplazamiento de las personas y las mercancías sea el responsable, en gran medida, de la energía que se consume –en su mayor parte procedente de recursos no renovables- y de las cantidades de CO₂ que se generan, de su influencia en el clima, en la biodiversidad, en el consumo de suelo, así como la repercusión de los costes económicos y sociales derivados de un modelo que no se sostiene.

De este modo, la capacidad de controlar la relación entre las actividades humanas –en este caso la movilidad y el transporte- y los impactos sobre el medio, condicionan la continuidad en el tiempo de las diferentes formas de actividad y del potencial de desarrollo económico y social.

Esto ha inducido a plantear en el marco mundial y de la Unión Europea un nuevo modelo de desarrollo que definitivamente aparte el modelo tradicional de crecimiento desmesurado e irreflexivo y plantee un marco de referencia que obligue a reexaminar desde una nueva perspectiva el transporte, la movilidad y la ordenación del territorio. Un nuevo modelo que no sitúe en el centro de la movilidad humana al vehículo privado, sino que también observe como alternativas factibles modos blandos como la bicicleta y el modo peatonal, en alianza con los modos públicos de transporte.

Así, los diferentes órganos de gobierno de la UE vienen apostando por políticas favorables a la movilidad sostenible aprobando una serie de documentos estratégicos entre los que son destacables el

inguruko politikaren liburu zuria 2010erako. Liburu horretan gobernu eta administrazio maila guztietan garraioaren arloan dauden mehatzak eta aukerak islatu dira eta agintariei erabaki jakin batzuk hartzeko eskatu zaie. Ildo beretik doa Liburu Berdea: "Hiriko garraioaren kultura berrirantz"; honen funtsezko gaia ere garraio iraunkorra eta arduratsua da.

Euskal Autonomia Erkidegora etorrita, aipatu beharra dago Europar Batasunak garraio iraunkorraren arloan ezarritako esparru estrategikoa eta politikoa eraginkortasunarekin txertatu dela, batez ere motorrik gabeko joan-etorriez finkatu dena, bizikleta eta oinez ibiltzea direla alternatiba nagusiak. Hainbat ekimen abiarazi dira xede horretarako. Hain zuzen ere, EAEko Garraio Iraunkorreko Plan Gidarian garraio publikoa motorrik gabeko aukerekin uztartzea eta ibilgailu pribatuaren zentzugabeko erabilera murriztea hautatu da, eta gainera garraio iraunkorreko udal planak aipatzen dira.

Eusko Legebiltzarrak ere eman ditu ebazpen batzuk gai honen inguruan, eta denetan garrantzitsuen 1998ko maiatzaren 8ko legekoa ez bestelako proposamena izan zen, zirkulazio arauak ziklismora moldatzeari buruzkoa; proposamen hartan Eusko Jaurilaritza eta foru aldundiei eskatu zitzaizkien bultzatza ziklisten segurtasuna hobetzeko ekimenak eta lagun zezatela horretarako azpiegiturak eraikitzen. Beste alde batetik, Eusko Legebiltzarrak bat egin zuen bizikleta erabiltzeko eskubidea aldarrikatu zuen Amsterdamgo Adierazpenarekin (2006ko maiatzaren 17), eta horrela argi utzi zuen bizikleta sustatu nahi zuela garraibide pertsonal gisa. Geroago, Eusko Jaurilitza ere ekimen hari atxiki zitzaion eta, urrats bat gehiago emanez, Bizikleta Bideen Arloko Lurralde Plana prestatzeko konpromisoa hartu zuen.

Oso garrantzitsua da hirigune nagusiak lotuko dituen bizikleta bideen sarea sortzeko gainerako administrazioekin batera lankidetzan jardutea, horrelaxe soilik bermatu baitaitezke pertsonen garraiorako eta aisialdiko eta turismo jardueretarako erantzun eta alternatiba izan behar den sare horren plangintza, eraikuntza, artapena eta zaintza; gainera, oraingo sareak beste lurralde batzuetakoekin ingurukoekin zein atzerrikoekin, lotu ahal izango dira.

Azaldutako guztiaren itzalpean eta motorrik gabeko aukera bigunetan oinarritutako garraio iraunkorraren ikuspegia aintzat hartuta, foru arau hau prestatu da Arabako Biltzar Nagusiek 2008ko urtarriaren 24an berariaz emandako aginduari erantzuteko. Hain zuzen ere, Biltzar Nagusiek Aldundiari eskatu zioten presta eta sor zezala bizikleta bideen foru sarea, garraio iraunkorrak garatu eta zabaltzeko oinarritzeko azpiegitura gisa, arloko ildo estrategiko nagusiak bereganatzeko eta trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legeria eta horren baterako arautegira egokitzeko.

Honako esparru juridiko honen bitartez lortu nahi dugu bizikleta bidea bide azpiegitura gisa aintzatestea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuko 10.34. artikuluan (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa) eta Euskal Autonomia Erkidego osoko erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7.a.8 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, baina beraren ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

Izan ere, Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua eraldatu duen abenduaren 19ko 19/2001 Legearen onarpenaren ondoren bizikleta bideak nahiko finkatuta daude, behintzat ezarrita baitaude izena, definizioa eta tipifikazioa. Zehatzago, arau honetan, Trafikoari buruzko Legeak (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) ziklismoaren arloan ezarritako aldaketaz biltzeaz gainera, gauza batzuk zuzendu eta osatu dira azaroaren 25eko 43/1999 Legean ("Ziklismoa eta zirkulazioa hiri barruan eta hiri artean. Zirkulazio arauak ziklismora egokitzea") eta Trafikoari buruzko Legearen eranskina aldatu da, hain

Libro Blanco sobre la Política de Transporte Europea de cara al horizonte 2010 que evidencia las amenazas y oportunidades que en materia de transporte se plantea en los diferentes niveles de gobierno y administración e insta a las autoridades a la toma de decisiones en este sentido. En la misma línea se encuentran el Libro Verde "Hacia una nueva cultura de la movilidad urbana", que una vez más incide en el concepto de movilidad sostenible y responsable.

En lo que al ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca respecta, es fundamental subrayar el traslado efectivo que se ha realizado del marco estratégico y político europeo en materia de movilidad sostenible y en concreto en lo relativo a la movilidad no motorizada, destacando en este punto la bicicleta y el modo peatonal. En este sentido, son múltiples las iniciativas adoptadas. Así, el Plan Director del Transporte Sostenible en la CAPV opta por la combinación de diversos modos de transporte público con modos no motorizados y restricciones al uso indiscriminado del vehículo privado, al tiempo que hace alusión a los Planes Municipales de Movilidad Sostenibles.

El Parlamento Vasco, a su vez, también cuenta con diversas resoluciones, pudiendo destacar de entre las mismas, la proposición no de ley referente a la adaptación de las normas de circulación a la práctica del ciclismo con fecha de 8 de mayo de 1998, en la que instaba al Gobierno Vasco y a las Diputaciones a que promovieran iniciativas que facilitaran la seguridad ciclista, así como que favorecieran la construcción de infraestructuras con dicho objeto. De otro lado, la misma institución se adhiere a la "Declaración de Ámsterdam sobre el derecho a usar la bicicleta" el 17 de mayo de 2006, mostrándose así favorable a la promoción de la bicicleta como medio de transporte personal. Posteriormente, el Gobierno Vasco se sumará a la misma iniciativa avanzando un paso más y comprometiéndose en la elaboración de un Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas.

Es preciso remarcar la importancia territorial que supone el hecho de desarrollar una red ciclista que conecte los principales núcleos urbanos, en colaboración con el resto de administraciones, para garantizar de este modo la planificación, construcción, conservación y protección de una red que se concibe como respuesta y alternativa al transporte de personas y al desarrollo de actividades de ocio y turismo, al tiempo que asegura la conectividad con las redes existentes en otros territorios, tanto limítrofes como supranacionales.

Al amparo de todo lo expuesto y bajo la óptica integradora del transporte y la movilidad sostenible centrada en los modos blandos que conforman la movilidad no motorizada, surge la presente Norma Foral como respuesta a la encomienda expresa que las Juntas Generales de Álava realizan con fecha de 24 de enero de 2008, instando a la Diputación Foral para la planificación y creación de una Red Foral de Vías Ciclistas, como infraestructura básica para el desarrollo y extensión de la movilidad sostenible, en su afán por asumir las principales líneas estratégicas en el área y adaptarse a la legislación sobre Tráfico, Circulación de vehículos a motor y Seguridad Vial, así como a su normativa concordante.

Mediante la definición del presente marco jurídico se pretende otorgar reconocimiento al concepto de vía ciclista como un nuevo tipo de infraestructura viaria, encuadrable en lo señalado por el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, y en el artículo 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos pero a la vez diferenciada, a tenor de sus particularidades y características específicas.

Infraestructuras ciclables que gozan, asimismo, de carta de naturaleza, si quiera sea a los meros efectos de su denominación, definición y tipificación, tras la aprobación de la Ley 19/2001, de 19 de diciembre, de "Reforma del Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de vehículos a motor y Seguridad Vial". En concreto, esta norma, además de introducir modificaciones en materia de ciclismo en la Ley sobre Tráfico (aprobada por Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo), complementa y realiza correcciones a la Ley 43/1999, de 25 de noviembre, sobre "Ciclismo-Circulación Urbana e Interurbana. Adaptación de las normas de circulación a la práctica del ciclismo" y

zuzen ere 69-74 bitarteko idatz zatiak (zer den bizikleta bidea eta nolakoak izan daitezkeen: bidegorria, bidegorri babestua, bizikleta espaloia, bizikleta pista eta bizikleta bidezidorra).

Hauxe da Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzko Foru Arauaren egitura: lau titulu, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Atariko tituluan (“Xedapen orokorrak”) xedea finkatu da, azpiegituren definizioak eta motak ezarri dira, aplikazio eremua mugatu da, bai eta babesguneak ere, eta bizikleta bideen katalogoa ezarri da. Horrez gainera bide titulartasuna eta haiek eskualdatzeko prozedura jorratu dira, eta azkenik bizikletan ibiltzeko azpiegituren ezaugarri guztiak ezarri dira.

Lehenengo tituluan (“Plangintza eta eraikuntza) lurralde plangintzarako tresna nagusia finkatu da: Bizikleta Bideen Arloko Lurralde Plana. Ondoren obra mota guztien proiektuen eta burutzapenaren inguruko gaiak aztertu dira, gero lurren jabetza kentzeko prozedura eta foru sareko bizikleta bideak egiteko, hobetzeko eta artatzeko finantzaketa finkatu dira eta, azkenik, obrak egiteko betekizunak ezarri dira.

Bigarren tituluan (“Arabako foru sareko bizikleta bideen ustiapena”) batez ere bizikleta bideen xedea eta ustiapen moduak landu dira, eta haien erabilerak eta babesguneak ere aipatu dira. Gainera seinaleak, sarbideak, finken itxiturak eta bananketa ere aztertu dira, eta bizikleta bideen zaintzaren inguruko alderdi batzuk ere bai.

Hirugarren tituluan (“Baimenen eta zehapen prozeduraren araubide orokorra”) foru sareko bizikleta bideetan eta haien babesguneetan jarduerak, lanak eta obrak egiteko behar diren administrazio baimenen araubidea ezarri da. Horrez gainera, titulu honetan Arauan ezarritakoaren arabera zehapena ekarriko duten ekintzak eta ez-egitea tipifikatu eta sailkatu dira, eta arau hausteei ezarriko zaizkien isunak bildu dira taula batean.

Laugarren tituluan (“Bizikletaren erabileraren sustapena Araban”) Arabako Lurralde Historikoan bizikletaren eta bizikleta bideen erabilera sustatzeko elementu batzuk finkatu dira. Hain zuzen ere, bizikleta bideetan –erregistratutako marka: “Arabako bizikleta bideak”– kontuan eduki beharreko irizpideak homologatzeko mekanismoa ezarri da, bai eta Lurraldeko motorrik gabeko joan-etorriak ikuspegi sistemati-koarekin eta hainbat irizpide aplikatuta aintzat izango dituen estrategia ere bai. Azkenik, parte hartzea ezinbestekotzat jo da arlo honetako politikak antolatzeko eta modu eraginkorrean aplikatzeko, eta horregatik Arabako Bizikletaren Kontseilua sortu da, honen inguruko parte hartzea bideratuko duen organo iraunkorra.

Foru arau honetako gainerako artikuluekin bat etorriz, xedapen gehigarrietan berariazko aginduak ezarri dira gai honen inguruan: Bizikleta Bideen Arloko Lurralde Planari ekiteko epealdiak; hirigintzako antolamendu eta plangintzako tresnak Arauan ezarritakora egokitzea; zehapenen zenbatekoak eguneratzea eta Arabako Biltzar Nagusiei eman beharreko informazioari buruzkoa.

Xedapen bakarrean ezarritako araubide iragankorraren arabera foru sareko bizikleta bideak atontzeko obrak Bizikleta Bideen Arloko Lurralde Plana onartu baino lehen egin izango dira.

Xedapen indargabetzaileak bertan behera utzi ditu foru arau honetan ezarritakoarekin bat ez datozen aurreko xedapen guztiak.

Azkenik, azken xedapenetan baimena eman zaio Diputatuen Kontseiluari Arabako bizikleta bideei buruzko Foru Araua garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko. Bertan ezarritako guztia ez da aplikatuko indarrean jarri arte.

recoge una nueva redacción del Anexo de la Ley de Tráfico, en concreto de los apartados 69 a 74, donde explícitamente se articula qué debe entenderse por Vía-Ciclista y algunas de sus tipologías (carril-bici; carril-bici protegido; acera-bici; pista bici y senda ciclable).

La Norma Foral de las Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Álava se estructura en cuatro títulos, tres disposiciones adicionales, una única disposición transitoria, una disposición derogatoria y dos disposiciones finales.

El Título Preliminar (“Disposiciones Generales”) atiende al objeto, al cuerpo de definiciones y tipologías de las infraestructuras, delimita el ámbito de aplicación, defines las zonas de protección y establece el catálogo de vías ciclistas. También alude a la titularidad de las vías y al procedimiento de transferencia de las mismas, finalizando con la determinación de aquellas características con las que han de estar provistas las infraestructuras ciclables.

El Título Primero (“Planificación y Construcción”) considera la figura del Plan Territorial Sectorial de las Vías Ciclistas de Álava como instrumento principal de planificación territorial en todo su desarrollo. A continuación señala los aspectos relativos a la proyección y ejecución de los diferentes tipos de obras, para seguir con el procedimiento expropiatorio, con la financiación destinada a la construcción, mejora y conservación de las vías ciclistas forales y cerrando el Título con los requisitos necesarios para la ejecución de las obras.

El Título Segundo (“Explotación de las Vías Ciclistas Forales de Álava”), se centra básicamente en el objeto y formas de explotación de aquellas vías, aludiendo, a su vez, al uso de las mismas y de sus zonas de protección. Referencia cuestiones de señalética, de accesos, de cerramientos de fincas y segregación de vías, considerando además, aspectos vinculados a la vigilancia de las infraestructuras ciclistas.

El Título Tercero (“Régimen General de Autorizaciones y Procedimiento Sancionador”) constituye el régimen de autorizaciones administrativas requeridas para la ejecución de toda clase de actividades, trabajos y obras a realizar en las Vías Ciclistas Forales y en sus zonas de protección. Además de lo ya indicado, este Título Tercero tipifica y clasifica aquellas acciones u omisiones que sean objeto de sanción según lo dispuesto en el resto del presente cuerpo normativo, estableciendo un cuadro de multas para las infracciones contempladas.

El Título Cuarto (“Promoción del uso de la bicicleta en Álava”) articula una serie de elementos destinados a la difusión y promoción del uso de la bicicleta y las vías ciclistas del Territorio Histórico de Álava. Establece de este modo, un mecanismo destinado a la homologación de los criterios que han de observar las vías –la marca registrada “Vías Ciclistas de Álava” –, además de una estrategia que abarque bajo una óptica sistémica y multicriterio, la movilidad no motorizada del territorio. Finalmente, se considera que la variable participativa deviene crucial a la hora de elaborar y desarrollar de forma efectiva y eficaz cualquier política relativa a la cuestión y para ello, se establece la configuración de un órgano estable de participación de carácter asesor cual es el Consejo de la Bicicleta de Álava.

En coherencia con el resto del presente cuerpo normativo, las disposiciones adicionales contienen expresos mandatos relativos a los plazos de inicio del Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas; a la adecuación de los instrumentos de ordenación y planificación urbanística a los mandatos de la Norma y a la actualización de las cuantías de las sanciones y sobre la información que se debe facilitar a las Juntas Generales de Álava.

El régimen transitorio contenido en una única disposición, prevé la posibilidad de realizar obras de habilitación de las vías ciclistas forales antes de la aprobación del Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas Forales.

La disposición derogatoria declara sin vigencia todas aquellas disposiciones anteriores en el tiempo que contradigan los mandatos contenidos en la presente Norma Foral.

Por último, las disposiciones finales autorizan al Consejo de los Diputados a dictar las disposiciones que consideren oportunas para el desarrollo reglamentario y ejecución de la Norma Foral de las Vías Ciclistas de Álava, quedando sujetas y condicionadas todas las determinaciones en la misma contenidas, a su posterior entrada en vigor.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuko 10.34. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidego osoko erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7.a.8 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Arabako Lurralde Historiak errepideen eta bideen plangintzarako, proiektuak egiteko, eraikuntzarako, kontserbaziorako, aldaketarako, finantzaketarako, erabilerarako eta ustiapenerako eskumena dauka. Esparru juridiko honen bidez bizikleta bidearen kontzeptua finkatu nahi dugu, bide mota berria den aldetik. Izan ere, nahiz eta lehen aipatutako legeetan aipatu, bizikleta bidea, berezko dituen ezauzgarriak eta berezitasunak kontuan hartuta, ezin da sartu Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabiltzeari, kontserbatzeari eta zaintzeari buruzko otsailaren 13ko 6/95 Foru Arauan ezarritako bideen definizioan.

Atariko titulua Xedapen orokorrak

I. Kapitulu

Xedea, definizioak eta aplikazio eremua

1. artikulua.- Xedea.

Foru arau honen xedeak dira:

1.- Bizikleta bidea zer den zehaztea eta bide mota berritatzat onartzea, kontuan izanik ezaugarri bereziak dituela eta ezinbestekoa dela motorrik gabeko joan-etorrietarako, batez ere bizikletan ibiltzeko, beste garraio azpiegitura batzuk ez bezala.

2.- Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideren Foru Sarearen plangintza, proiektuak, eraikuntza, aldaketak, kontserbazioa, ustiapena, erabilera eta babesa arautzea, hiri barruko eta hiri arteko bizikleta bideak garatzeko, garraio iraunkorra sustatzeko asmoarekin. Horretarako, sareak bi helburu edukiko ditu: batetik, eguneroko joan-etorriak bizikletan egiteko aukera ematea; bestetik, naturara hurbiltzeko eta aisialdian kirolean aritzeko aukera ematea. Horrela, Lurraldea egituratzen lagunduko duen beste bide sare bat sortuko da, eta gero sare hori udalek, kontzejuek eta eskualdeko erakundeek garatu beharko dute tokian tokiko obrekin.

3.- Sareko bideen ondoko lurren erabilerak zehaztea.

4.- Berariazko tresna bat izatea bizikletan ibiltzeko Bideen Foru Sarea sustatzeko.

2. artikulua.- Bizikletan ibiltzeko azpiegituren definizioa eta motak.

1.- Bizikleta bideak jabari publikoko azpiegiturak dira, bizikletak ibiltzeko proiektatu eta eraikiak edo berariaz horretarako egokituak; beharrezko seinale horizontalak eta bertikalak edukiko dituzte, eta beraien zabalera eta zirkulazio araubidea bizikletak segurtasunarekin ibiltzeko modukoak izan behar dira.

2.- Bizikleta azpiegituren motak haien plataformaren arabera ezarriko dira, motordun ibilgailuak eta oinezkoak eta beraien arteko distantzia kontuan harturik. Hona sailkapena:

2.1.- Motordun ibilgailuen trafikotik bereizitako bideak: motordun trafikotik aldentuta daudenak.

a.- Bizikleta pista: norabide bakarreko edo bi norabideko bizikleta bidea, motordun ibilgailuen eta oinezkoen trafikotik bereizita dagoena eta berezko trazadura eta plataforma dauzkana.

b.- Bizikleta espaloia: norabide bakarreko edo bi norabideko bizikleta bidea, espaloia gainean ezarria eta oinezkoentzako eremutik hainbat modutara bereizi eta babestu daitekeena.

c.- Bidegorri babestua: errepidearen plataforman bertan egon arren errepidetik eta motordun ibilgailuen trafikotik, bai eta espaloitik ere, alboko elementuen bidez (mutiloak, zintarrak etab.) bereizita dagoen bizikleta bidea. Norabide bakarrekoa zein bikoa izan daiteke.

2.2.- Bide integratuak: Bizikletak eta motordun ibilgailuak batera dabiltzan bideak, bakoitzaren eremua bereizi gabe edo ia-ia bereizi gabe.

El Territorio Histórico de Álava es competente para la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de las carreteras y caminos a tenor de lo dispuesto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y en el artículo 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos. Mediante la definición del presente marco jurídico se pretende otorgar reconocimiento al concepto de vía ciclista como un nuevo tipo de camino, una nueva vía de comunicación que si bien forma parte de los caminos contemplados en los preceptos citados, dadas sus características específicas no es encuadrable en la definición de camino recogida en la Norma Foral 6/95, de 13 febrero, para el uso, conservación y vigilancia de caminos rurales del Territorio Histórico de Álava.

Título preliminar Disposiciones generales

Capítulo I

Objeto, definiciones y ámbito de aplicación

Artículo 1.- Objeto.

Es objeto de la presente Norma Foral:

1.- La definición y reconocimiento del concepto de vía ciclista como nuevo tipo de camino con características propias y esenciales a un tipo de infraestructura básica específica para el desarrollo de la movilidad no motorizada, preferentemente ciclista, y diferenciada de otros tipos de infraestructuras de transporte.

2.- La regulación de la planificación, proyección, construcción, modificación, conservación, explotación, uso y defensa de la Red Foral de Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Álava para el desarrollo de la movilidad ciclista peri/interurbana, que promueva la movilidad sostenible. A tal fin, la red responderá a unos objetivos funcionales de movilidad alternativa cotidiana en bicicleta, por un lado, y de acercamiento al medio natural y de ocio y deporte, por otro. Así, quedará conformada una nueva red viaria estructurante del Territorio, que deberá ser complementada con otros desarrollos más locales, de responsabilidad concejal-municipal-comarcal

3.- La determinación de las limitaciones de uso del suelo adyacente a la referida Red.

4.- El disponer de herramientas específicas para la potenciación del uso de la Red Foral de Vías Ciclistas.

Artículo 2.- Definición y tipología de las infraestructuras ciclistas.

1.- Se entiende por vía ciclista aquella vía de dominio público proyectada y construida o específicamente acondicionada para la circulación de bicicletas, con la señalización horizontal y vertical correspondiente, siempre y cuando su ancho y régimen de circulación garanticen el paso seguro de estos vehículos.

2.- La tipología de las infraestructuras ciclistas será establecida en función de la conformación de su plataforma en relación a los modos motorizados y peatonal y el grado de separación con respecto a estos. Se establece de este modo la siguiente clasificación:

2.1.- Vías Segregadas del tráfico motorizado: aquellas que están separadas físicamente del tráfico motorizado.

a.- Pista-bici: Vía ciclista unidireccional o bidireccional segregada del tráfico motorizado y peatonal, pero con trazado y plataforma independiente.

b.- Acera-bici: Vía ciclista unidireccional o bidireccional dispuesta sobre la acera, que puede presentar distintos grados de diferenciación y protección con respecto a la movilidad peatonal.

c.- Carril-bici protegido: Vía ciclista que ocupa parte de la plataforma de la carretera y que está segregada físicamente de la misma y del tráfico motorizado, así como de la acera, mediante elementos laterales como bolardos, bordillos u otros elementos de separación o protección. Su sentido puede ser unidireccional o bidireccional.

2.2.- Vías Integradas: aquellas vías compartidas por el tráfico de ciclos y vehículos a motor o con una mínima diferenciación de usos, sin segregación de modos.

a.- Bidegorria: norabide bakarrekotik bizikleta bidea, galtzadari atxikia baina, hala ere, hartatik eta motordun trafikotik bereizita (norabidea motordun ibilgailuena bera da).

b.- Bizikleta bazterbidea: errepidearen bazterbidean egindako bizikleta bidea, errepidean bertan egon arren seinaleen eta bide marken bidez, kolore edo gainazal desberdinez, sestra aldaketatxo batez edo beste nolabait bereizita dagoena (norabidea motordun ibilgailuen trafikoa bera da).

c.- Denetarako bide seinalizatua (edo mistoa): hiri barruko zein hiri arteko bidea, ziklistak eta motordun ibilgailuak batera ibiltzeko taxutu dena, hau da, motordun ibilgailuen trafiko lasaiari eta haren erregulazioari esker, batzuen eta besteen eremuak bereizi gabe bizikletan eroso eta seguru ibil daitezkeen bidea.

3. artikulua.- Aplikazio eremua.

1.- Foru arau hau Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen Katalogoan sartzen diren Aldundiaren titulartasuneko bizikleta bide guztietan aplikatuko da. Foru arau honen aplikazio eremutik kanpo utzi dira berriaz bide berdeak eta landa bideak.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako bizikleta bideak foru sareko bizikleta bideak izango dira ondorio guztietarako, eta oinarritzko azpiegiturak izango dira garraio iraunkorra garatzeko eta zabaltzeko.

3.- Foru arau honen ondorioetarako, bertan ezarritakoa foru sareko bizikleta bideen babesguneetan ere aplikatuko da, bai eta beraien funtzionamendu onerako prestatzen diren eremu eta elementu guztietan ere: zerbitzuguneak, atsedenguneak, aparkalekuak eta antzekoak.

4.- Foru errepide bati lotutako bizikleta bideen kasuan (bidegorri babestuak, bidegorriak eta bizikleta bazterbideak, batez ere), errepideei buruzko araudian ezarritakoa aplikatuko da (horren arabera ezarriko da kasu bakoitzean foru arau honen erdiespena).

5.- Berriaz ezarritako gero eta oinezkoen eta ziklisten trafikoa eragozpenik gabe batera egiteko behar diren seinaleak jarri gero, foru sareko bizikleta bideetan oinezkoak ere ibili ahal izango dira.

6.- Foru Aldundiak dauka foru sareko bizikleta bideak planifikatzeko, proiektatzeko, eraikitzeko, mantentzeko, hobetzeko, ustiatzeko, sustatzeko eta zaintzeko eskumena.

4. artikulua.- Babesguneak.

1.- Foru sareko bizikleta bideak babesteko bideko bertako lurren erabilerak eta babesguneak kontrolatuko dira, II. tituluaren arautu den bezala.

2.- Foru sareko bizikleta bideetan babesgune hauek egongo dira:

- a) Jabari publikoko eremua
- b) Zortasun eremua
- c) Afektazio eremua

5. artikulua.- Jabari publikoko eremua.

1.- Foru sareko bizikleta bideek eta haien elementu funtzionalak okupatzen dituzten lurra jabari publikokoak izango dira.

2.- Horrez gainera, jabari publikoko eremuan sartuko da bizikleta bidearen ondoko metro bateko zabalerako lur zerranda bat ere (zerrandaren zabalerak horizontalean neurtuko, ardatzarekiko zut, berdindutako lurren kanpoko ertzetik).

Ondorio guztietarako, berdindutako lurren kanpoko ertza lur erauzketaren edo lubetaren ezpona edo eustorma eta berezko lurra gurutzatzen diren tokia da.

Zubi, bidezubi, tunel, azpiegitura eta antzeko obretan, berdindutako lurren kanpoko ertza obren ertzaren lurren gaineko proiektio bertikalaren lerroa izan daiteke. Beti ere, egituraren euskarriek hartzen duten lurra jabari publikoko eremua izango da.

a.- Carril-bici: Vía ciclista unidireccional adosada a la calzada y que está diferenciada, que no segregada físicamente de la misma y del tráfico motorizado, y que discurre en el mismo sentido de circulación.

b.- Arcén-bici: Vía ciclista que ocupa el arcén de la carretera, que transita en el mismo sentido de la circulación motorizada, no segregada físicamente pero sí diferenciada mediante señalización y marcas viales, cambios de color y/o textura, ligeros cambios de rasante u otros métodos.

c.- Vía señalizada compartida o mixta: Vía urbana o interurbana debidamente tratada para facilitar la coexistencia de la circulación ciclista con el tráfico motorizado, en la que el diseño, la baja densidad motorizada y lo atemperado de su tráfico, así como su regulación, permiten un tránsito suficientemente cómodo y seguro en bicicleta; sin los niveles de diferenciación anteriores, en régimen de coexistencia.

Artículo 3.- Ámbito de aplicación.

1.- El ámbito de aplicación de la presente Norma Foral se extenderá al conjunto de las vías ciclistas de titularidad foral que se designen y se incluyan como tales en el Catálogo de Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Álava. Quedan expresamente excluidas de la presente regulación las denominadas "Vías Verdes" y los caminos rurales.

2.- Las vías ciclistas recogidas en el párrafo anterior tendrán a todos los efectos la consideración de "Vías Ciclistas Forales" y constituirán una infraestructura básica para el desarrollo y extensión de la movilidad sostenible.

3.- A los efectos de la presente Norma Foral constituyen ámbito de su aplicación las zonas de protección de las vías ciclistas forales, así como todas aquellas áreas o elementos asociados a su buen funcionamiento, tales como áreas de servicio y descanso, aparcamientos u otras análogas.

4.- En los supuestos de vías ciclistas que se encuentren asociadas a una carretera foral (generalmente del tipo denominado carril-bici protegido, carril bici o arcén-bici) se estará a lo dispuesto en la normativa de carreteras, en base a la cual se establecerá el alcance de esta Norma Foral en cada caso.

5.- Cuando expresamente así sea previsto y quede garantizada y señalizada la adecuada coexistencia de los desplazamientos a pie y en bicicleta, será posible el uso peatonal de las vías ciclistas forales.

6.- Es responsabilidad de la Diputación Foral la planificación, proyección, construcción, mantenimiento, mejora, explotación, promoción y vigilancia de las vías ciclistas forales.

Artículo 4.- Zonas de protección.

1.- La protección de las vías ciclistas forales se extenderá al control de los usos del suelo de la propia vía y a toda la superficie de su zona de protección según las condiciones reguladas en el Título II.

2.- Las zonas de protección establecidas para las vías ciclistas forales serán las que siguen:

- a) La zona de dominio público
- b) La zona de servidumbre
- c) La zona de afección

Artículo 5.- Zona de dominio público.

1.- Pasarán a integrar parte de la zona de dominio público aquellos terrenos ocupados por las Vías Ciclistas Forales, así como sus elementos funcionales.

2.- Juntamente con dichos terrenos, se considera zona de dominio público la franja de terreno colindante a la infraestructura ciclista de un metro de anchura, a cada lado de la vía, medidas en horizontal y perpendicularmente al eje de la misma, desde la arista exterior de la explanación.

A todos los efectos, se considera arista exterior de explanación la intersección del talud del desmonte, del terraplén o de los muros de sostenimiento colindantes con el terreno natural.

En el caso de puentes, viaductos, túneles, estructuras u obras análogas, la arista exterior de la explanación podrá quedar establecida en la línea de proyección vertical del borde de las obras sobre el terreno. Será considerado en todo caso de dominio público aquel terreno ocupado por los soportes de la estructura.

3.- Foru sareko bizikleta bidea foru errepide baten ondoko edo hurbileko lur zerrenda batean badago, hau da, haren jabari publikoko zerrendaren barruan badago, jabari publikoko zerrenda berria finkatzeko bi neurketen emaitzarik handiena hartuko da aintzat.

6. artikulua.- Zortasun eremua.

1.- Foru sareko bizikleta bideek zortasun eremua edukiko dute, hain zuzen ere bi lur zerrenda bidearen alboetan, muga hauekin: barrutik aurreko artikuluan azaldu den jabari publikoko eremua eta kanpotik berdindutako lurren kanpoko ertzetik paraleloan, hiru metro eta erdira (ertzetatik neurtuta), ezarritako bi lerro.

2.- Foru sareko bizikleta bidea foru errepide baten ondoko edo hurbileko lur zerrenda batean badago, hau da, haren babesgunearen barruan badago, zortasun eremu berria finkatzeko bi neurketen emaitzarik handiena hartuko da aintzat.

3.- Zortasun eremuan ezingo dira obrak egin; bide segurtasunarekin bateragarriak diren erabilerak bakarrik baimenduko dira (Foru Aldundiko organo eskudunak eman behar du baimena). Horrek ez ditu eragozten gainerako eskumenak.

4.- Foru Aldundiko organo eskudunak baimena eman ahal izango du zortasun eremua erabiltzeko herritar guztien intereseko arrazoiengatik edo bidea hobeto erabili ahal izateko beharrezkoa izanez gero.

7. artikulua.- Afektazio eremua.

1.- Bizikleta bideen afektazio eremua bi lur zerrenda izango dira bidearen alboetan, muga hauekin: barrutik zortasun eremua eta kanpotik berdindutako lurren kanpoko ertzetik paraleloan, bost metro eta erdira (ertzetatik neurtuta), ezarritako bi lerro.

2.- Afektazio eremuko eraikin edo instalazioetan obrak egiteko edo haien erabilera aldatzeko erakunde titularraren baimena beharko da (horrek ez ditu eragozten gainerako eskumenak). Bidearen titularrak baimenik ez emateko arrazoiak proposatutako obrek bizikleta bideko ohiko jarduerak egiteko ekar ditzakeen eragozpenak eta oztupoak izango dira, hau da, obrek bizikleta bidearen funtzionaltasuna eragozteak.

8. artikulua.- Araubide demaniala.

Foru sareko bizikleta bideak jabari eta erabilera publikoko ondasunak dira; beraz, ezin dira besterendu, ez bahitu, ez preskribatu. Foru sareko bizikleta bideen titulartasuna eta haien eraikuntza, kontserbazio eta ustiapenerako jarduketak publikoak ez daude zergapean.

9. artikulua.- Arabako bizikleta bideen katalogoa eta izenak.

1.- Foru Aldundiak foru sareko bizikleta bideen katalogoa onartuko du. Bertan foru sareko bizikleta bide guztiak jasoko dira eta zehatz-mehatz azaldu eta sailkatuko dira: bakoitza bere identifikazioarekin eta izen ofizialarekin agertuko da. Katalogoa aldian-aldian aztertu eta eguneratuko da.

2.- Arabako Foru Sareko Bizikleta Bideen Katalogoa ondoko kasuetan aldatuko da:

a) Bi administrazio publikoren arteko akordio baten ondorioz bide baten titulartasuna aldatuz gero.

b) Arabako Foru Aldundiak bizikleta bide berriak eraikiz gero.

3.- Foru sareko bizikleta bideen izenak haien izendazioari eta Katalogoan sartzeko prozedurari buruzko foru dekretuan ezartzen denaren arabera ezarriko dira, Euskararen Erabileraren Normalizazioari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

4.- Arabako foru sareko bizikleta bideen identifikazioak eta izenak Lurralde Historikoko toki administrazioekin eta ondoko lurraldeetako administrazioekin koordinatuta finkatuko dira.

3.- En los casos en que la Vía Ciclista Foral esté construida en las franjas de terreno colindantes o próximas a una carretera foral y, por consiguiente, dentro de su franja de dominio público, a efectos de fijar la nueva franja de dominio público prevalecerá la superior resultante de aplicar ambas mediciones.

Artículo 6.- Zona de servidumbre.

1.- Las Vías Ciclistas Forales dispondrán de una zona de servidumbre fijada por dos franjas de terreno a ambos lados de las mismas, delimitadas interiormente por la zona de dominio público definida en el artículo anterior y exteriormente por dos líneas paralelas a las aristas exteriores de la explanación a una distancia de tres metros y medio, medidas desde las citadas aristas.

2.- En aquellos supuestos en que la Vía Ciclista Foral esté realizada en franjas de terreno colindantes o cercanas a una carretera foral, y por tanto dentro de la franja de protección de ésta, prevalecerá a efectos de fijar la nueva zona de servidumbre la superior resultante de aplicar ambas mediciones.

3.- En la zona de servidumbre no podrán realizarse obras ni se permitirán más usos que aquellos que sean compatibles con la seguridad vial, previa autorización, en cualquier caso, del órgano competente de la Diputación Foral, sin perjuicio de otras competencias concurrentes.

4.- En todo caso, el órgano competente de la Diputación Foral podrá autorizar la utilización de la zona de servidumbre por razones de interés general o cuando lo requiera el mejor servicio de la vía ciclista.

Artículo 7.- Zona de afección.

1.- La zona de afección de una vía ciclista consistirá en dos franjas de terreno a ambos lados de la misma, delimitadas interiormente por la zona de servidumbre y exteriormente por dos líneas paralelas a las aristas exteriores de la explanación a una distancia de cinco metros y medio, medidas desde las citadas aristas.

2.- Para llevar a cabo en la zona de afección cualquier tipo de obra en edificaciones o instalaciones preexistentes o modificar el uso de éstas, será precisa la autorización de la Entidad titular, sin perjuicio de otras con competencias concurrentes. La no autorización por parte del titular de la vía estará fundamentada en posibles interferencias y dificultades que las actuaciones propuestas puedan causar en el normal desarrollo de la movilidad autorizada en la vía ciclista afectada y, por tanto, en la funcionalidad de la propia infraestructura ciclista.

Artículo 8.- Régimen demanial.

Las vías ciclistas forales se consideran bienes de dominio y uso público, por lo que no son enajenables, embargables ni prescriptibles. En ningún caso, su titularidad o las actuaciones públicas referidas a la construcción, conservación o explotación de las Vías Ciclistas Forales están sometidas a tributo alguno.

Artículo 9.- Catálogo y denominación de las Vías Ciclistas de Álava.

